

- Zuzentzeko, "Aimarren bertsoak 2" bideoa ikusiko dugu.

ERANTZUNAK:

Bertso-oinak dagokien hurrenkeran:

- 1) gazteko, askeko, adierazteko, hazteko, marrazteko, hasteko, irabazteko
- 2) eredugarria, ekarria, miresgarria, berria, orria, gorria, Herria.

- "Egin klik KORRIKari! B2/C1" aldizkaria banatu, eta bertsoak komentatuko ditugu (aldizkariaren 8. or.): ulertu dituzten (partida irabazteko bat falta dela esatean, pilota-partidei egiten die erreferentzia, 22ra baitira, eta 21. KORRIKA da...), zer iruditu zaizkien...

A.2. Zaldieroaren komikia

- Zaldieroa komikigilearen aurkezpena irakurri eta ezagutzen dugun komentatuko dugu labur (irakaslearen orrietan, 4. or.).
- Aldizkariko komikia irakurri (8. orrialdean hau ere) eta ulertu duten, gustatu zaien... komentatuko dugu (KORRIKAREN hasiera irudikatzeke, komikigileak Indiana Jonesen film bat dakar gogora).

B. KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK

B.1. Istorioak irakurri eta elkarri kontatu

- Ikasleek "KORRIKAKO istorio bitxiak" artikulua irakurriko dute: ikasle bakoitzak istorio bat irakurtzeko eta ondo ulertzeko ardura izango du (aldizkariaren 2.-4. or.).
- Taldeka elkartu, eta istorioak elkarri kontatuko dizkiote.
- Solasalditxo egingo dugu: zein istorio gustatu zaizue gehien? Zeinek harritu zaituzte gehien? Ezagutzen al duzue horrelako istorio gehiago?
- Bakarka, aldizkaritxoan proposatzen zaien ariketa egingo dute. Zuzenketa, talde handian egingo dugu (aldizkariaren 4. or.).

ERANTZUNAK:

1. 1980ko azaroaren 29an, KORRIKA abian jarri zen, Oñatin, bederatzi egunen buruan Bilbora iristeko asmoz.
2. Baina antolaketa-arazoek eta eguraldi kaskarrak ez zuten korrikalariak gelditzerik lortu.
3. 1985eko maiatzaren 21ean, gose-grebari ekin zioten Gasteizko AEK-ko zazpi irakaslek.
4. Seigarren KORRIKAN, azkenean, Barandiarani omenaldia eskaintzeko erabakia hartu zuen AEK-k.
5. Izango ote zuten antolakuntzaren autoek eta ehunka korrikalarik mugaz bestaldera igarotzerik?
6. ... abisua berandu eman bazuten ere, Errioxa iragartzen zuen kartelera heltzean errepidea garbi aurkitu zuten.

B.2. KORRIKAKO istorioen lehiaketa

- "Neure KORRIKAKO istorioa" orria banatu ondoren (irakaslearen orrietan, 5. or.), istorio-lehiaketa aurkeztu, eta ikasleak parte hartzera animatuko ditugu.

Oharra: lehiaketan KORRIKAKO bizipenak kontatu behar direnez, ariketa hau KORRIKA igaro ondoko egunetarako utz dezakegu, edo, nahi izanez gero, aurreko edizioetako bizipenak idatz ditzakegu.

C. KORRIKAN PARTE HARTZEKO MODUAK

- "Hamaika modu KORRIKAN parte hartzeko" artikuluan, ikasleek lau lagunen bizipenak irakurri eta proposatzen den ariketa egingo dute (aldizkariaren 5.-6. or.).

ERANTZUNAK:

1. egonda ere. EGIA; 2. dena. GEZURRA; 3. pribilegiotzat. EGIA; 4. zenbat eta/orduan eta. GEZURRA; 5. dezagun. EGIA; 6. izan ezik. GEZURRA

- Solasalditxoa egingo dugu: zein lagunekin identifikatu zara gehien? Zuk nola bizi izan duzu KORRIKA?
- Hiriko, herriko edo auzoko KORRIKA -egitarauaren berri eman, eta parte hartzera animatuko ditugu: prestaketan guri edo KORRIKA batzordekoei laguntzeko (herria apaintzen, materiala saltzen, txandaren bat egiten...) edo gelakoekin planen bat egiteko (ekitaldiren batean parte hartzeko, herri-bazkarira elkarrekin joateko, euskaltegiaren kilometroan korrika egitera joateko, KORRIKA hasiera edo amaierara joateko...).

D. DENBORA-PASAK

- Denbora-pasak egingo dituzte (aldizkariaren 7. or.).

ERANTZUNAK:

Txillardegiren esaldia: Euskara da gure territorio libre bakarra.

Hitzak: 1. Egurra; 2. Oroitu; 3. Belarra; 4. Kabia; 5. Kirtena; 6. Arras; 7. De.



AIMAR KARRIKAREN BERTSOAK

Aimar Karrika (Auritz, 1988).

Gaur egun, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko "Bertsolarien Lagunak" bertso-elkarterako dihardu lanean, irakasle. 18 urte bete zituenetik hartzen du parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Azken hiru edizioetan, finalera iritsi da. 2017an hartu zuen parte lehen aldiz Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusian.

Jarraian, 21. KORRIKari eskaini dizkion bertso batzuk entzun eta irakurriko ditugu.



AIMARREN BERTSOAK OSATU

Ikasle nekaezina

Heldu (1)

_____ (2)

_____ (3)

_____ (4)

_____ (5)

_____ (6)

_____ (7)

ORRIA	GORRIA
BERRIA	HERRIA
EKARRIA	MIRESGARRIA

Gazte zaharkitu eta

Zahar aldarte (8)

_____ (9)

_____ (10)

_____ (11)

_____ (12)

_____ (13)

_____ (14)

HASTEKO	IRABAZTEKO
ADIERAZTEKO	ASKEKO
HAZTEKO	MARRAZTEKO

ZALDIEROA KOMIKIGILEA

Patxi Huarte Larraburu, Zaldieroa (Faltzes, Nafarroa Garaia, 1966ko urtarrilaren 14a), euskal komikigilea da. Gaur egun, Berria egunkarian, *De rerum natura* komikizintak egiten ditu, eta kolaborazioak egin izan ditu *Aizu!*, *Nabarra*, *Bertsolari*, *Xabiroi* eta Karrikiri elkartearen *Karrika* aldizkarietan. Deia egunkariko *Ortzadar* gehigarrian ere argitaratzen du.

Jarraian, 21. KORRIKArako sortu zuen komikia dugu.



